



LH-3. MAILA
2. UNITATE DIDAKTIKOA
"Aniztasuna"



ANIZTASUNA-3. OKA URDINA ETA OKA ARROSA: GAINDITU

Idatzi zure izena:

1. - "Nesken okan" egin daitezkeen ikasketa eta lortu daitezkeen **trebetasun** hauetan, idatzi **BAI** hitza, **zure ustez**, bizimodu ona eta harreman **pozgarriak** izateko **baliagarriak** direnean:

	Gauzak konpontzeko besteen zain egotea	
	Pertsonak errespetatzea, entzutea eta laguntzea	
	Sentimenduak ezagutu, kudeatu eta partekatzea	
	Nire eta besteen osasuna eta ongizatea zaintzea	
	Besteek nahi dutena egitea, pozik egon daitezen	
	Eguneroko bizitzaren egoera eta lanez arduratzea	

2. - "Mutilen okan" egin daitezkeen ikasketa eta lortu daitezkeen **trebetasun** hauetan, idatzi **BAI** hitza, **zure ustez**, bizimodu ona eta harreman **pozgarriak** izateko **baliagarriak** direnean:

	Zailtasunei aurre egin eta, beti, berriro saiatzeara	
	Beti arrazoia izatea eta nik nahi dudana egitea	
	Nik nahi dudana bizimodua egiten ahalegintzea	
	Harremanetan eta arazoetan indarkeria erabiltzea	
	Gauza berriak, beldurrik gabe ikasi eta erabiltzea	
	Nire gustuko gauzetarako denbora gordetzea	

3. - Idatzi **EGIA** ala **GEZURRA** diren esaldi hauek:

Bakoitzak bere ibilbidea egin dezake, okak jarraitu gabe		Mutilen oka hobea da. Hobeto denok oka hori ikasiko bagenu	
Nork bere ikasketak eta jarduerak aukeratzeko eskubidea du		Bakoitza nahi duen moduan izateko, hobe okak ez jarraitzea	
Oka bietan bizitzarako gauza onak eta txarrak daude, onak aukeratu		Hoberena, besteek espero duten modukoak izan eta bizitzea da	
Hoberena, bakoitzak bere izaera, ahalmek eta nahiak garatzea da		Anitzak gara, bakoitzak den modukoa izateko eskubidea du	

→ **Berdintasuna: nork bere bide propioa aukeratu eta egitea.**